

Egiaren atzetik



Ocioko gaztelua, Araba. ASIER ACIRRESAROB

XAN HARRIAGUE

Nafarroa. Erreinuaren defen-
datu zuten gazteluak li-
buruen hirugarren ale-
an, Iñaki Sagredo histo-
rialariak (Irun, 1967) Nafarroako
Erreinu bertzeko zati bat aztertu
du, itsasaldea, gaur egungo Biz-
kaia, Araba eta Gipuzkoa alegia.
Dioenez, ale hori zerutik hartutako
Erdi Aroko arrasto polit batzuk
baino gehiago da. Euskal Herria-
ren zatiketa ulertzeko oinarritzkoa
da, eta etorkizunari begira kon-
tuan hartu beharrekoa.

Aitzineko bi aleetan, Nafarroa
eta Goi Aragoiko, Sobrarboko eta
Ribargotsako gazteluak aztertu
zitu, eta, oraingoan, Nafarroako
Erreinu mendebaldeko aztertu
du. Guztira Erdi Aroko 40 gaztelu
zenbatu ditu, gehienak Araban
daude. Gaztelako Erreinuak
mehatxatzen zuen aldean hain
zuzen. Liburua zerutik hartutako
argazki osatuta dago, baina,
horretaz gain, egileak azalpen
franko gehitu ditu irakurleak
hobeki uler dezan; hala, garaiko
gazteluak irudikatzen dituzten

Nafarroako Itsasaldea
defendatzeko eta
kontrolatzeko gazteluak
aztertu ditu
Iñaki Sagredok.


marrazkiak, mapak eta artxiboak
daude.

Sagredok bi eratan sailkatzen
ditu aztertu dituen gazteluak, alde
batetik, defentsarako zirenak, eta
bertzetik, eremu baten kontrola-
tzeko zirenak. Inbasio arriskua
Ebro bestaldean zegoela eta, gazte-
lu gehienak Araba hegoaldeko pa-
sabideetan zeuden, eta etsaiek bi
defentsa lerro gainditu behar zi-
tuzten Gasteizko hiria erasotu
ahal izateko.


Gainerako gazteluak eskualde-
ak kontrolatzeko ziren, eta arris-

kua anitzez txikiago izaki propor-
tionalki bakanagoak.


Defentsarako izan edo kontrole-
rako izan, denek ezaugarri berdi-
tsuak zituzten. Iristeko zailak zi-
ren tokietan eraikitzen zituzten,
harkaitz edo tontor baten gainean.
Altueran izateak bi abantaila zi-
tuen, batetik etsaiari erasotzeko
trabak ematen zizkion, baina, den-
bora berean, ibar eta eskualde oso-
ak kontrolatzeko gaitasuna ere
bai. Arkitekturari dagokionez, do-
rreak eta harresiak harrizkoak izan-
ten ziren, baina zura ere erabiltzen




Marrazkian, Ausako gazteluak izan zuten itxura ikus daiteke.



Ocioko gazteluaren irudia.



■ GAZTELUEN KOKAPENA



Tontor batean zegoen Ausako gaztelua. ASIER ACIBRESARROBE

zen gehienetan jaten zutena, eta
ondotik zerrikia eta behikia.
Arraina eta zaldikia, berriz, oso
gutitan izaten zituzten.

HISTORIARA PASATUTAKO «GEZURRA».
XVII. mendearen Garbair historiala-
riak Euskal Herriko zatiketari
buruzko teoria sustatu zuen. Zioe-
nez, 1200. urtean Nafarroako
Erreinuak zati hau Gaztelaren
Erreinuarekin alde pasatu zen bere
kabuz. Geroztik, historiako libu-
ruetan ideia hori nagusitu da,
baina Iñaki Sagredo horrekin ez
dago ados, eta liburu horrekin fro-
gatzen du indarrez egindako kon-
kista izan zela.

Garaiak Nafarroako foruek ziotenez, bere gaztelua etsaien esku uzten zuten zalduna gogor zigortua izanzen zen, eta erreinitutik kanporatua. Baina XII. mendean, nahiz eta, Nafarroako mendebalde galdu, urte batzuk berandua-go zaldun batzuk Nafarroako erregearen aginduetara segitzen zuten. Hau da, Donostiako Joan Bidaurren kasua. 1199an Mota, Belagoa eta Hondarribiko gazteluak jabea zen eta 1237an. Nafar-

Bi eratan sailkatu ditu gazteluak: defentsarako zirenak, eta eremu baten kontrolatzeko zirenak

Garaiko Nafarroako foruek ziotenez, gaztelua etsaien esku uzten zuen zalduna gogor zigortua izanen zen

roako erregearentzat lanean segitzen zuen Irurita, Mendigorria, Viana eta Los Arcosen. Adibide horrek agerian uzten du ez zela traiziorik izan, baizik eta inbasio bat.

Bestalde, Ausa eta Ataungo gazteluak galdu eta berehala berreskuratu zituen Nafarroako Erregeak. Horri Sagradok garai haietako borroka baten antza handia ikusten dio.

Nafarroako artxiboak galdut
ziren, baina Monastegietakoak ez.
Hala, Irantzukoan, Gaztelako
tropen aurkako kekak agertzen
dira mozkinak eta abereak lapur-
tu zituztelako. Historialariaren
ustez, horrek erakusten du
eskualde horretan kanpoko solda-
duak egon zirela. Gisa berean, Vi-
nako printzeak horrela zion
1450ean idatzitako kronika bate-
an. «Indar guztiak egin zituzten
borrokatzen, baina azkenean
arazo eman behar izan zuten, eta
horrela hartu zituzten Araba eta
Ginzuoko lurra».

Gaztelako artxiboek berek gezurtatu duen haien teoria. Sagredo aurrkitu duen testamentu batean, Alfonso VIII.a Gaztelako erregeak zion indarrean konkistatutako lurrak Nafarroako Erregeari itzuliko zizkila. Hil zorian zen, eta pentsa daiteke bere kontzientzia garbitu nahai izan zuela. Horrelako dokumentu anitz omen daude, baina historialariak dienez gaur egun ere «trabatzten» dute, eta nahiaho izaten da «gezurra» irakatsi egia baino.



JACOB MANTEROLA / ARCAZKI PRES

IÑAKI SAGREDO Historialaria

«Politikariak Nafarroako
zati hori ezkutatu
nahi dute»

X. HARRIAGUE

Historialaria da Iñaki Sagredo, Nafarroako Erreinuko gazteluei buruzko hirugarren liburua argitaratzen du.

Zergatik lotu zinen horrelako lan bati?

Oso garrantzitsua iruditzen zait jendeak bere ondarea ezagutzeko, eta horren arabera gaur egungo gaietan erabakitzea. Hirugarren litur hau sentimenterik luze berridago, gaur egungo politikariek Nafarroako zati hori ezkutatuz nahi dutelako. EAB eta Nafarroako mugak gainditu behar izan dugu, garai hartan nafar guztiak euskaldunak zirelako, eta euskaldun guztiak nafarrak. Mugak bertze nonbait ziren. Jendeari ulertarazi nahi diogu, alde horretan batzuzk zergatik nafarrak sentitzen diren. Bestalde gureztatu nahi dugu historialari amatez sustatu duten teoria erriak, Gipuzkoako zaldunak Gaztelarean alde pasatu zirela XII. mendean. Hori ezzen hala izan. Inbasio garbia izan zen, eta, beraz, guztiak salagarria. Hala ere, guk ez duguz politikarik egin nahi, baina argi utzi gaur batean Nafarroa eta EAB guztiak lotuak izan direla.

Nola lan egin duzu liburur horren osatze-
ko?

Bertze liburuetan bezala, ikerketak lan sakona egin behar izan dugu, gelditzen diren arrastoez hasiz, eta, ondotik, irudikatuz gazteluak nolakoak izan zitezkeen. Oraingoan zailago izan da, garai horretaz dokumentazio oso guti dagoelako.

Hori guzia zerutik hartutako argazkiekin osatu dugu, oso adierazgarriak direlako irakurle arruntentzat.

Zer-nolako baliabideak izan dituzu?

Erakunde publikoetatik ez dugu batere diru laguntzarik jaso seguraski nahi ez duten zerbait egiten dudalako. Beraz, ahal bezala ibili naiz, argazkiak nik neuk aterezaz segurtasun neurri oso guti dituen autogiro batetik.

Gaztelu horiek zer-nolako egoeretan daude?

Gehienak egoera oso txarrean, eta lan horrekin ere, salatu nahi dugun horien inguruan dagoen utzikeria. Batzuekin neurriak ez badira laster hartzen guziz desagertuko dira. **Nolako erantzuna izan dute aitzineko bi aleek?**

Nahiko ona egia erran, segur aski Nafarroako historia alpatzen dugulako berste ikuspuntu batetik. Gazteluei buruzko liburuak dira, baina kontuan hartu behar da gazteluetan oinarritzen direla Nafarroako historia azaltzeko. Horretaz gain, arrakasta izan dute, nire ustez, sentimentuen ikuspuntutik eginak daudelako, ez orain arte argitaratu diren bertze azpitaz beza.

Nafarroako Erreinko gazteluei zuzentako argazkiak www.iberweb.net/d2

Ez, hemendik sei hilabeteren bu-
ruan Nafarroako Erreinuko Kan-
tabria eta Errioxako gazteluei bu-
ruzko laugarren liburua plazara
tuko dut. Segur aski hori izanen da
azkena.